

KUTXABANKEN SUSTAPEN KANPAINA:

«REALAREN ETA ATLETICO DE MADRILEN ARTEKO 2026KO KOPAKO FINALERAKO SARREREN ZOZKETAK»

1.- Zertan datza sustapen hau?

KUTXABANK SAK (aurrerantzean, «Kutxabank» edo «Bankua») «REALAREN ETA ATLETICO DE MADRILEN ARTEKO 2026KO KOPAKO FINALERAKO SARREREN ZOZKETAK» izeneko sustapen-kanpaina bat (aurrerantzean, «Sustapena») egingo du estatu-mailan. Bi zozketa bereizi izango ditu, eta oinarri hauetan zozketa bakoitzerako ezarritako baldintzak betetzen dituzten Kutxabankeko bezero diren adin nagusiko pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute bertan.

Zozketa horien xede bakar eta nagusia publizitatea eta sustapena da, eta parte-hartzailearentzat ez dauka kostu gehigarririk.

2.- Ze sari jaso dezakezu sustapen honetan parte hartzeagatik?

Sustapen honen barruan, bi zozketa bereizi egingo dira, «1 zozketa» eta «2. zozketa» izenekoak, eta bakoitzak bere saria izango du. Oinarri hauen ondorioetarako, «zozketa» aipatzen den guztietan banakako zozketa bakoitzari buruz ari garela ulertu beharko da, eta «1. zozketa» edo «2. zozketa» aipatzen dugunean, berriz, zozketa horietako bakoitzari aplikatu beharreko baldintza partikular eta espezifikoei buruz soilik ari garela ulertu beharko da.

Sustapenak 20 sari ditu guztira. Horietatik 18 sari 1. zozketan esleituko dira eta gainerako biak 2. zozketan, atal honetan aurreikusitakoaren arabera:

- 1. zozketako sariak

1. zozketak 18 sari izango ditu; haietako bakoitza 2026ko apirilaren 18an La Cartuja estadioan (Sevillan) jokatu den Realaren eta Atletico de Madrilaren arteko 2026ko Errege Kopako finalerako banakako sarrera izendun bat izango da.

Lehenengo zozketa buletin elektronikoko bidez izena eman duten bezeroen artean egingo da.

- 2. zozketako sariak

2. zozketak 2 sari izango ditu; haietako bakoitza 2026ko apirilaren 18an La Cartuja estadioan (Sevillan) jokatu den Realaren eta Atletico de Madrilaren arteko 2026ko Errege Kopako finalerako banakako sarrera izendun bat izango da.

Bigarren zozketa www.kutxabankatsegindut.eus micrositearen bidez izena eman duten bezeroen artean egingo da.

Sustapen honetako saria sarrera ematera soilik mugatzen da, arestian adierazitako baldintzetan. Beraz, saria baliatzeak eragin dezakeen gastu gehigarri oro saridunak bere gain hartu beharko du oso-osorik, eta ez du Bankuaren eskutik diru-itzulketarik, konpentsaziorik edo ordainketa gehigarririk jasotzeko eskubiderik izango.

Arrazoi teknikoengatik, osasun-arrazoiengatik, ezinbesteko arrazoiengatik edo Kutxabanken borondatearekin zerikusirik ez duen beste edozein arrazoiengatik Kopako finala ezin bada aurreikusita dagoen egunean egin, Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko. Halaber, Kutxabankek ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko saridunari finalera joateagatik gerta dakizkiokeen kalte edo galerengatik.

Parte-hartzaileak onartzen du Kutxabankek ez duela inolako erantzukizunik izango zozketan parte hartzeak edo saria erabiltzeak eragin ditzakeen kalte zuzenen, zeharkakoen, gorabidekoen edo lortu gabeko irabazien gainean, aplikatu beharreko araudiak salbuetsi ezin daitekeen erantzukizuna ezartzen duen kasuetan izan ezik.

3.- Zenbat iraungo du sustapenak?

Sustapena 2026ko martxoaren 21etik 2026ko martxoaren 26ra egongo da indarrean, bi egun horiek barne.

Oinarriak hauek Vicente M^a Arenal Otero Bilboko notarioaren aurrean gordailutuko dira. Sustapen honetako zozketak 2026ko martxoaren 27an egingo dira, edo ahalik eta data hurbilenean, egun horretan ezin bada egin. Kasu horretan, ahal bezain laster emango dizugu horren berri.

Kutxabankek sustapen hau edo berau osatzen duten zozketetako bat bertan behera uzteko edo baliogabetzeko eskubidea du, edo sustapenaren baldintzaren bat aldatzekoa, baldin eta arrazoi teknikoengatik, osasun-arrazoiengatik, nahitaezko kausengatik edo bere borondatearekin zerikusirik ez duen beste edozein arrazoiengatik sustapenaren garapen normala bete ezin bada; Kutxabankek ez du horregatik inolako erantzukizunik izango. Kasu horretan, zozketaren oinarri eta baldintza berrien edo zozketaren ezeztatzearen berri emango dizugu ahalik eta lasterren.

Horrez gain, Kutxabankek zerikusirik ez duten arrazoiengatik sarituak ezin badu saria baliatu, Kutxabankek ez du erantzukizunik hartuko bere gain.

4.- Ze baldintza bete behar dituzu sustapen honetako zozketa bakoitzean parte hartzeko?

Sustapen honetan eta berau osatzen duten zozketetan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzu:

- Adinez nagusia izatea.
- Kutxabankeko bezero izatea.
- Zozketa bakoitza egiten den egunean eta saria jakinarazten den egunean, kasuan kasuko zozketarako ezarri diren baldintza orokor eta espezifiko guztiak betetzea.

Sustapena osatzen duten zozketa bakoitzak izaera bereizia du, eta, beraz, haietako batean parte hartzeak ez du esan nahi eta ez du bermatzen beste zozketan parte hartuko duzunik. Zozketa bakoitzean parte hartzeko, honako baldintza espezifiko hauek bete beharko dira:

1. zozketa:

1. zozketan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek guztiak bete beharko dituzu:

- a) Zerga-egoitza Gipuzkoan edo Madrilen izatea, izena emateko buletina bidaltzen den egunean, hau da, 2026ko martxoaren 21ean, Kutxabanken fitxategietan dagoen informazioaren arabera.
- b) Nomina, pentsioa, langabezia-saria edo autonomoen kuota zure titulartasuneko Kutxabanken kontu batean helbideratuta izatea.
- c) **2026ko martxoaren 20a** baino lehen, Kutxabanki **helbide elektronikoko baliodun** bat jakinarazi izana.
- d) **2026ko martxoaren 21ean** posta elektronikoz bidaliko dizugun buletin elektronikoa eskuragarri izango duzun parte-hartze formularioa behar bezala bete eta bidaltzea, **2026ko martxoaren 26ko 23:59ak baino lehen**. Horretarako, **lege-oinarri hauek irakurri eta onartu** beharko dituzu.

1. zozketa arestian aipatuko baldintzak betetzen dituzten eta buletin elektronikoa bidez izena eman duten bezeroen artean bakarrik egingo da.

2. zozketa:

2. zozketan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzu, zure adinaren arabera, bai eta atal honetan zehaztutako gainerako parte-hartze baldintzak ere:

a) 27 urte (adin hori barne) edo gehiago badituzu:

Nomina, pentsioa, langabezia-saria edo autonomoen kuota zure titulartasuneko Kutxabanken kontu batean helbideratuta izatea.

b) 27 urte baino gutxiago badituzu:

Baldintza hauetakoren bat bete beharko duzu:

- Nomina, pentsioa, langabezia-saria edo autonomoen ordainagiriaren kuota zure titulartasuneko Kutxabanken kontu batean helbideratuta izatea; edo
- Kutxabank kontu baten eta Korner Kutxabank txartel aktibo baten titularra izatea (Visa Dual Korner, Visa Dual K26, Visa Dual K26+, Visa Dual Red, Visa Debit Korner, Visa Debit K26, Visa Debit K26+, Visa Debit Red).

Horrez gain, 2. zozketan parte hartu ahal izateko, honako pausu hauek eman beharko dituzu zozketa egin baino lehen:

i) www.kutxabankatsegindut.eus micrositean sartzea **2026ko martxoaren 25eko 23:59ak baino lehen** eta Kutxabank ondoko zein sare sozialetan jarraitzen duzun adieraztea: Kutxabank Instagramen, Kutxabank TikToken, Kutxabank Xen, Kutxabank Facebooken; Kutxabank Gaztea Facebooken; eta Kutxabank LandK Facebooken.

ii) Parte hartzeko formularioa eskatzen zaizkizun datuekin behar bezala betetzea (izen-abizenak, NAN, telefonoa, helbide elektronikoa eta zure erabiltzaile-izena kasuan kasuko sare sozialetan), baita lege-oinarri hauek irakurri eta berariaz onartzea ere.

5.- Nortzuk geratuko dira sustapen honetatik kanpo?

- Kutxabankek bi zozketetatik kanpo utzi ahal izango ditu zozketa egiten den egunean Bankuan mugaeguneratutako saldo zordunak, hau da, saldo negatiboak dituzten pertsona fisikoak.
- Zozketa egiten den egunean kapital-zuriketa prebenitzeko fitxategien barruan dauden pertsonak.
- Datuak babesteko araudiaren arabera publizitaterik ez jasotzeko eskaera egiten dutenak edo jakinarazpen komertzialik ez jasotzeko fitxategiren baten barruan daudenak.

6.- Zein da sustapenaren mekanika?

- «**1. zozketan**» aukera edo parte-hartze txartel bakarra emango zaizu.

- «**2. zozketan**», aldiz, aukera edo parte-hartze txartel bat emango zaizu jarraitzen duzun Kutxabanken sare sozial bakoitzeko, aldezturik 4. puntuaz azalduko prozeduraren bidez adierazi dituzunak, eta, gehienez, sei parte-hartze txartel emango zaizkizu.

Bi zozketak D. Vicente M^a Arenal notarioaren aurreran egingo dira 2026ko martxoaren 27an, edo ahalik eta data hurbilenean, egun horretan ezin bada egin. Kasu horretan, aldaketaren berri emango dizugu.

Zozketak egiteko, fitxategi bat prestatuko da sustapen honetako zozketa bakoitzerako, oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen dituzten bezeroen datuekin eta bezero bakoitzari emandako parte-hartze txartel kopuruarekin. Fitxategia Vicente M^a del Arenal Otero Bilboko notarioari emango zaio.

1. fitxategian «1. zozketan» saritutako pertsonen datuak jasoko dira, eta zehaztutako epean parte-hartze formularioa bidali duten bezero guztien datuak barne hartuko ditu, lehenengo abizenaren arabera modu korrelatiboan zenbakituta.

2. fitxategian «2. zozketan» saritutako pertsonen datuak jasoko dira, eta erabiltzaileek www.megustakutxabank.es micrositearen bidez eman dituzten datuak barne hartuko ditu (izen-abizenak, NANA, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa). Bezeroak NANaren arabera ordenatuta agertuko dira, zenbaki txikienetik handienera.

Sustapen honen oinarriak eta fitxategia D. Vicente M^a Arenal Otero Bilboko notarioaren aurrean gordailutuko dira.

Saria eskuratuz gero, oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten egiaztatuko da. Saridunak ez baditu zehaztutako baldintzak betetzen, zozketaren hurrengo erreserbari eskainiko zaio saria.

Fitxategi hori zozketa egin eta hilabetez gordeko da, interesa duten pertsonak nahi dituzten egiaztapenak egin ditzaten.

- **1. zozketaren mekanika**

Fitxategiko lehenengo eta azkeneko aukeraren artean jasota dagoen zenbaki bakar bat eskuz aterako da ausaz. Zenbaki hori izango da saritutako lehenengo aukera. Gainerako (17) zenbaki sarituak zeintzuk diren jakiteko, bai eta ondoren erreserban geratuko diren (15) zenbakiak

ezagutzeko ere, lortutako zenbakiari honako hau batuko zaio prozedura informatikoen bidez: fitxategian dauden aukera guztien batura zati sari guztien kopurua (18) gehi erreserba kopurua (15); hau da, zenbaki saritua zati (33) egingo da, eta lortutako zatidura beherantz biribilduko da (kasuan kasuko zenbaki osoa, dezimalak kenduta), aukera saritu guztiak lortu arte (17 zenbaki metodo honen bidez), eta ondoren eragiketa bera egingo da erreserba-zenbakiak eskuratzeko (15). Ondorio horietarako, fitxategiaren amaierara iritsiz gero, erregistratutako lehenengo aukeratik aurrera jarraituko da kalkulua, saritutako (18) eta erreserban geratu diren (15) zenbaki guztiak lortu arte. Kasu honetan, erreserbako zenbakiak lortzen diren azkenak izango dira.

- 2. zozketaren mekanika

Fitxategiko lehenengo eta azkeneko aukeraren artean jasota dagoen zenbaki bakar bat eskuz aterako da ausaz. Zenbaki hori izango da saritutako lehenengo aukera. Beste 4 zenbaki sarituak zeintzuk diren jakiteko, bai eta ondoren erreserban geratuko diren (20) zenbakiak ezagutzeko ere, lortutako zenbakiari honako hau batuko zaio prozedura informatikoen bidez: fitxategian dauden aukera guztien batura zati sari guztien kopurua (2) gehi erreserba kopurua (20); hau da, zenbaki saritua zati (22) egingo da, eta lortutako zatidura beherantz biribilduko da (kasuan kasuko zenbaki osoa, dezimalak kenduta), aukera saritu guztiak lortu arte (zenbaki 1 metodo honen bidez), eta ondoren eragiketa bera egingo da erreserba-zenbakiak eskuratzeko (20). Ondorio horietarako, fitxategiaren amaierara iritsiz gero, erregistratutako lehenengo aukeratik aurrera jarraituko da kalkulua, saritutako (2) eta erreserban geratuko diren (20) zenbaki guztiak lortu arte. Kasu honetan, erreserbako zenbakiak lortzen diren azkenak izango dira.

Pertsona bakoitzak sari bakarra jaso dezake. Sari bat baino gehiago irabazten baduzu, aukera bat baino gehiago egokitu zaizulako edo bi zozketetan parte hartu duzulako, saritutako lehenengo aukerari, hau da, 1. zozketari dagokion aukerari, dagokion saria baino ezin izango duzu eskuratu

7.- Nola jakinarazi eta emango dizugu saria?

Ondorio guztietarako, baita zerga-arlokoetarako ere, sariaren jakinarazpena telefonoz, mezu elektronikoen bidez edo Kutxabankek erabakitzen duen beste edozein bitartekoren bidez egingo da.

Bezere saridunak fitxa bat sinatu beharko du saria onartzen duela baieztatzeko, sariaren jakinarazpena jaso eta hurrengo bi (2) egun naturaletan. Bestela, sariari uko egin diozula ulertuko da.

Jakinarazi diguzun datuetan akatsen bat egonagatik ezin bazaitugu identifikatu edo/eta aurkitu, eta, ondorioz, ezin badizugu saria eman, Kutxabank ez da horren erantzule izango, eta saria erabiltzeko eta zuzenean erreserbei esleitzeko eskubidea izango du, zehaztuta dagoen hurrenkeran.

Zozketa egin eta zazpi egun naturaleko epean ezin bagara zurekin harremanetan jarri zozketaren emaitzaren berri emateko, Kutxabank ez da horren erantzule izango, eta saria erabiltzeko eta zuzenean erreserbei esleitzeko eskubidea izango du, zehaztuta dagoen hurrenkeran.

Kutxabankek erabakiko du saria nola eta non ematen zaizun.

Saria esleitzeko, oinarri hauetan jasotako baldintza guztiak bete beharko dituzu saria jakinarazten den egunean, baita ordainketak eta Kutxabankekin kontratatuta daukazun beste edozein eragiketa egunean izan ere. Hau da, ez du zorrik izan behar Kutxabankekin. Halaber, irabazleei ezingo zaie saria eman, baldin eta diru-sarreraren helbideratzea (bi zozketetan parte hartzeko ezinbesteko baldintza) bere titulartasuneko Kutxabanken kontuan ezeztatu badute, edo/eta 2. zozketan parte hartzeko aukera ematen zien Kutxabank txartelak ezeztatu badituzte.

Kutxabankeek eskubidea du oinarriok bete ez dituzten parte-hartzaileak sustapenetik kanpo uzteko, justifikatutako arrazoiengatik.

8.- Sariari uko egitea

Sariari uko egin ahal diozu, baina ezin diozu beste inori eman. Kasu horretan, zozketaren hurrengo erreserbari eskainiko zaio saria.

Sariari uko egin nahi badiozu, idatziz jakinarazi behar diozu Bankuari, saria jakinarazi eta hurrengo bi (2) egun naturaletan, eta ez duzu inolako ordainik jasoko. Epe horretan Kutxabankeek ez badu inolako jakinarazpenik jasotzen (saria onartzeko zein sariari uko egiteko), sariari uko egin diozula ulertuko da, eta Kutxabankeek saria erabili ahal izango du.

Saria irabazi duen bezeroak, saria onartu ondoren, ezin badu saria erabili Kutxabankekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, sariari isilbidez uko egitea ekarriko du, eta ez du horregatik inolako ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

9.- Saria aldatzea

Zozketa honen bidez jasotzen duzun saria ezin da inolaz ere aldatu edo moldatu. Kutxabankeek saria ordezkari dezake, bidezko edo nahitaezko arrazoiengatik.

10.- Datu pertsonalen babesa

Zozketan parte hartzeak parte-hartzaileen datu pertsonalak Kutxabankeko Informazio Sistematan sartzea dakar, parte-hartze hori kudeatzeko.

Datuak edozein publizitate edota sustapen-jardueratan, edozein bitarteko, euskarri edo formatutan, zure izena, abizenak edota irudia jasotzeko, erabiltzeko edo zabaltzeko helburuarekin tratatuko dira soil-soilik. Ekinbide horiek ez dute ordainsari edo etekinik eskuratzeko eskubiderik sortuko, saridunaren edo, hala dagokionean, bere lege-ordezkariaren baimena berariaz jasota badago.

Horrez gain, kontuan izan datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia duen edozein arazoren aurrean, erreklamazio bat aurkez daitekeela edonoz kontrol-agintaritzaren aurrean, baita datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, lekualdaketa eskatzeko eta datu pertsonalekin loturiko banakako erabaki automatizatuen parte ez izateko eskubideak baliatu ere. Bada, eskubide horiek baliatzeko, idatzi bat bidali beharko da Kutxabanken egoitza sozialera edo helbide elektronikora, info@kutxabank.es. Bi kasuetan,

NANaren fotokopia bat erantsi beharko da. Zure datu pertsonalak araudiak agindu bezala tratatu ez ditugula uste baduzu, Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jar zaitezke, dpo@grupokutxabank.com helbidean.

11.- Zein da zure sariak izango duen zerga-tratamendua?

Sarituak bere gain hartu beharko ditu sustapen honetako sariak ekar ditzaketen zerga-arloko kargak.

12.- Oinarriak kontsultatzea eta onartzea

Sustapen honetan parte hartzeak eta saria onartzeak lege-oinarri hauek onartzea dakar berekin, erakundeak zozketaren mekanika zehazteko ezarritako baldintzei dagokienez.

Oinarriok bezeroen eskura egongo dira Kutxabanken bulegoetan eta www.kutxabank.es webgunean.

Bilbon, 2026ko martxoaren 16an.